

Maleta prestatzeko trikimailuak

Kaixo, lagunak! Gaurko trikimailuen atalean maleta nola egin erakutsiko dizuegu. Askotan, zalantza izaten dugu ea arropa edo gailu guztiak sartuko diren edo ez, baina trikimailu honi esker zalantza horiek desagertu egingo dira.

Lehen urratsa, sartu nahi dugun guztiaren zerrenda egitea izango da. Zerrenda honi esker ez dugu ezer ahaztuko. Eta ,orain, zerrenda esku artean dugula, sartu beharreko gauza guztiak mahai gainean jarri.

Arropa guztia mahai gainean dugula, hirugarren urratsa tolestea izango da. Horretarako, biribilkatu egingo dugu. Metodo honekin, arropak maletan leku gutxiago hartuko du. Lekua irabazteko, galtzerdiak kirol-oinetakoan barruan sar ditzakegu. Jada, arropa guztia tolestu eta maletan sartu dugu; orain, maleta itxi eta oporretara joateko prest gaude.

Hau gure gaurko trikimailua, bagoaz oporretara? Bidaia ona izan!